

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila****Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 1298/2020 FORU AGINDUA, ekainaren 11koa, Bizkaia Kirolak 2020 sarietarako hautagaiak aurkezteko epea zabaltzen dueña.**

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren martxoaren 9ko 742/2020 Foru Aginduaren bidez (martxoaren 16ko 52. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean), Bizkaia Kirolak 2020 sarietarako deialdia egin zen. Sariotako oinarriak ezarri ziren beraz, gure lurralde historikoan jarduera fisikoa eta kirola bultzatzen eta sustatzen eginiko lanetan nabarmendu diren pertsonen eta entitateen aipamen berezia egiteko.

Laugaren Oinarrian ezarri zen hautagaitzak aurkezteko epea izango zela Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik 2020ko martxoaren 31ra arte, biak barne.

2020ko martxoaren 14an, alarma-egoera deklaratzeko erabaki zen, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera, COVID-19ren pandemiak eragindako osasun-krisia zela eta, epe eta epemuga administratiboak bertan behera utziz.

Epe eta epemuga administratibo horien suspentsioa 2020ko ekainaren 1ean altxatu zen.

Dena dela, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko Sailak uste du hautagaitzak aurkezteko epea zabaldu egin behar dela, pandemiak sortutako ezohiko egoeratik. Era horretan ahalbidetuko litzateke hautagaiak proposatu gura dituzten entitate zein norbanakoek asti nahikoa izatea hautuaz hausnartzeko eta beharrezko dokumentazioa prestatzeko.

Beraz, kontuan harturik zer eskumen ematen dizkidaten hala Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak nola Euskara eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi duen martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehen: Bizkaia Kirolak 2020 sarietarako deialdia egiten duen Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren martxoaren 9ko 742/2020 Foru Aginduaren artikulua Bakarreko Laugarren Oinarriko 1.a) puntua aldaraztea, eta hautagaitzak aurkezteko epea zabaltzea 2020ko uztailaren 30a arte, beraz barne.

Bigarrena: Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

AZKEN XEDAPENA**Azken Xedapen Bakarra. — Indarrean jartzea**

Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2020ko ekainaren 11n.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA